



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2016ko hirugarren
hiruhilekoa

aurkibidea: edukiak eta emaitzak

a. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera	3
b. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak	7
c. euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak	13
d. eranskina - indizeak	19
e. eranskina - metodologia	23
<i>fitxa teknikoa</i>	<i>26</i>


a) kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera

- 1. EAEko familien konfiantza pixka bat gutxitu da, baina oraindik hobekuntzatik gertu dago 4**
 - 2. Estatuan eta EB-28an atzerakada txikia gertatu da 5**
 - 3. konfiantza gutxitu egin da Erresuma Batuan, Frantzia ezkortasunak irauten du eta hobekuntza arina izan da Alemanian 6**
-

1. EAEko familien konfiantza pixka bat gutxitu da, baina oraindik hobekuntzatik gertu dago

2016ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizeak jaitsiera txikia izan du (-3tik -5era), baina oraindik ere azken sei hiruhilekoetako mailen barruan jarraitzen du.

Urteko lehen hiru hiruhilekoetan, konfiantza-indizearen batez besteko maila -5ekoa izan da; hau da, 2015ean lortutako batez besteko balioarekin (-6) alderatuta, hobekuntza txikia izan da. 2014. urtearekin alderatuta, hobekuntza-erritmoa mantendu egin da, baina oraindik ere ez du emaitza positiboetara iristeko muga gainditzea lortu.




2. Estatuan eta EB-28an atzerakada txikia gertatu da

EAEko familien konfiantzan izandako atzerakada txikiaren portaera Estatuan (-3tik -6ra) eta EB-28an (-6tik -8ra) ere gertatu da.

Horren inguruan, kontuan izan behar da urteko etapa honetan kontsumitzaileen hautematean inpaktu potentziala izan dezaketen faktore exogeno batzuk aldi berean gertatu direla: gubernurik eta horretarako akordiorik ez izatearen egoera (Estatuan) eta Brexitaren inpaktua onartzea (EB-28n).

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE, Estatua eta EB-28*



* EB-28 multzoaren eta Espainiaren 2016ko III. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta uztaileko eta abuztuko datuen batez bestekoari dagozkio.


3. konfiantza gutxitu egin da Erresuma Batuan, Frantzian ezkortasunak irauten du eta hobekuntza arina izan da Alemanian

2016ko hirugarren hiruhilekoan, Frantziako familien konfiantzak erabat ezkorra izaten (-15) jarraitzen du. Gainera, gobernuak bultzatu nahi dituen erreformen aurrean, ingurune soziala desados dago.

Bestalde, familien konfiantzak Erresuma Batuan izan duen jaitsierak (-1etik -8ra) islatuko luke EBtik ateratzeko kontsultaren emaitzak sortu duen ziurgabetasuna.

Horren aurrean, Alemaniako familien konfiantza berriro hobetu da (-3tik -2ra), langabeziaren datu historikoekin gainera (% 5 baino txikiagoak).

Konsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuaren eta Alemaniaren 2016ko III. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta uztaileko eta abuztuko datuen batez bestekoari dagozkio.


b) euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak

4. ekonomia orokorraren susperraldian konfiantza falta da	8
5. enpleguaren susperraldiarekin lotutako igurikimena gelditu egin da	9
6. familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruko balorazioa mantendu egin da	10
7. ezkortasunaren barruan, aurrezkian etengabe hobetzeko joera hauteman da	11
8. EAEko familien konfiantzaren hobekuntza gelditu egin da	12

4. ekonomia orokorraren susperraldian konfiantza falta da

2016ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzak egoera konplexua eta ezohikoa du oinarrian: hauteskundeak errepikatu dira eta Estatuan gobernuaren hutsunea dago, eta hauteskunde autonomikoak egingo dira irailean.

Faktore horiek, laneko merkatuko datuen inguruko presentzia mediatikoarekin batera (interpretazioak desberdinak dira, bereziki, abuztuari dagozkienak), hobetzea lortzen ez duen ekonomia orokorrari buruzko igurikimenak sortzen laguntzen ari direla dirudi. Hori dela eta, igurikimen horiek oraindik ere ezkortasunean (-7) kokatuta daude, eta 2015eko bigarren eta laugarren hiruhilekoetan izandako hobekuntzatik aldentuta.




¹ Interpretazioak desberdinak dira eta, bereziki, abuztuari dagozkienak.

5. enpleguaren susperraldiarekin lotutako igurikimena gelditu egin da

Langabeziaren bilakaeraren inguruko igurikimenak apur bat okertu dira (9tik 3ra). Baliteke neurri batean urte-sasoia araberako portaeraren ondorio izatea (jaitsiera bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean). Bilakaera bera ikusi dugu 2014an, 2015ean eta 2016an.


Gainera, familiei egindako kontsulta abuztuko enpleguaren inguruko datuen argitalpenarekin batera gertatu da. Datuak okertu egin dira uztailekoekin alderatuta (% -1,2 afiliazioa eta % +1,2 erregistratutako langabezia), baina hobetu egin dira 2015eko abuztuarekiko (% +1,8 eta % -8,1). Familiek aukera hori adierazten dute, eta horrek azalduko luke lan-merkatuaren inguruko igurikimen okerragoa izatea.



6. familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruko balorazioa mantendu egin da

Familiako egoera ekonomikoaren inguruko igurikimenen indizearen balioa (-4) ia lehen izandako berbera da eta, beste behin, 2014. urtearen hasieratik izandako emaitza onena izan da. Horrek sendotu egin du susperraldiarekin lotuta aurrez ikus daitekeen sekuentzia, baina oraindik ere ez da balio positibotan sartu.


2016ko hiru hiruhilekoetako batez besteko balioaren arabera, familiako ekonomiaren inguruko konfiantza -6 puntukoa da (nabarmen negatiboa, beraz), baina 2015. urtekoarekin alderatuta (-7) zertxobait hobetu da, eta 2014ko batez bestekotik (-14) aldentuta dago.



7. ezkortasunaren barruan, aurrezkian etengabe hobetzeko joera hauteman da

EAEko familien aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenen indizea oraindik ere ezkortasun-balioetan kokatuta dago (-10) 2016ko hirugarren hiruhilekoan.

2015 eta 2016 artean, EAEko familien aurrezteko igurikimena pixkanaka hobetzen joan da. Dena den, familien konfiantza aztertzeke erabiltzen diren lau indizeen artean, horixe da balorazio okerrena izan duena eta hura suspertzea gainerako elementuen (enplegua, familiako diru-sarrerak eta abar) mende dago.



8. EAEko familien konfiantzaren hobekuntza gelditu egin da

EAEko familien konfiantza-indizeak atzerakada txikia izan du 2016ko III. hiruhilekoan (-3tik -5era), baina azken sei hiruhilekoetako mailaren barruan jarraitzen du.

EAEko familien konfiantzak izandako susperraldia eszeptikoa izan da eta, itxuraz, hala jarraituko du 2016an ere; izan ere, oraindik ere balio negatibotan dago, baina 2014ko ezkortasunetik aldentzen duen sekuentziarekin.

Langabeziaren bilakaeraren inguruko igurikimenaren (3, -6 puntu) eta familiako ekonomiak izandako hobekuntza arinaren (-4, +1 puntu) ondoriozko emaitza da, nahiz eta ekonomia orokorraren inguruan ezkortasuna dagoen (balioa errepikatuz, -7). Hori guztia ezohikoa eta konplexua den testuinguru soziopolitikoak baldintzatzen du.

Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE



Indizea....	2014	2015	IV H-15	I H-16	II H-16	III H-16
Familien konfiantza	-20	-6	-4	-7	-3	-5
Ekonomia orokorra	-21	-4	-1	-8	-7	-7
Etxeko ekonomia	-15	-9	-6	-9	-5	-4
Langabeziaren bilakaera	-18	3	6	1	9	3
Aurrezteko gaitasuna	-23	-16	-15	-14	-11	-10


c) euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak

9. inflazio baxuaren igurikimenak bere horretan irauten du, baina zalantzak daude 14
10. erosteko unearen balorazioari dagokionez, horrek ez du axola 15
11. “erosketa handiak” egiteari dagokionez, zuhurtzia da nagusi 16
12. etxebizitza erosteko asmoa gutxitu egin da, eta autoarena mantendu 17
13. zuhurtziak jarraitzen du eta inflazio baxuko testuinguruan, kontsumoa hobetzen ari dela dirudi 18
-

9. inflazio baxuaren igurikimenak bere horretan irauten du, baina zalantzak daude

Prezioen bilakaerari lotutako igurikimena aurreko hiruhilekoetakoaren antzekoa da: kontsumitzaile gehienek ustez, hurrengo urtean prezioetan izango den igoera azken urtekoaren antzekoa (% 51) izango da edo pixka bat geldiago igoko da (% 32).

Iritzi horren emaitza erantsia (indizea) 21 puntutik 15era igaro da; hori dela eta, inflazio baxuko igurikimena mantendu egin da, baina gutxituta. Iritzi hori bat dator KPIaren inguruko informazioarekin¹, prezioen hazkundearen erritmoan susperraldia gerta daitekeela jasotzen baitu.



¹ 2016ko abuztuan, EAEko KPIak % 0,1eko urtetik urterako igoera izan zuen. Horren aurretik, aldiz, urtetik urterako tasa negatiboak izan ziren sei hilabete egon ziren.


² Azken hamabi hilabeteekiko

10. erosteko unearen balorazioari dagokionez, horrek ez du axola

¿Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak,..)?

Erosketa-unearen inguruko balorazioa pixkanaka hobetzen ari da. Une txarra (% 22, -3 pp) edo oso txarra (% 16, -2 pp) dela uste dutenen portzentaia gutxitu egin da eta, aldiz, igo egin da uneak ez diola axola uste dutenena (% 62, +5 pp).

Iritzi hori eransten duen indizea oraindik ere negatiboa da (-6) eta urteko bigarren hiruhilekoan izandako ia balio berbera du (-7), dena den, aurreko balorazioetakoarekin alderatuta, nabarmen hobetu da.



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


11. “erosketa handiak” egiteari dagokionez, zuhurtzia da nagusi

¿Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

2016ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko hiru kontsumitzailetatik bik (% 69) uste du bere erosketei eutsiko diela; lautik batek (% 21) uste du duela urtebetekoak baino txikiagoak izango direla, eta hamarretik batek dio (% 10) ugaritu egingo dituela.

Hitz gutxitan esanda, erosketa-asmoaren indizea nabarmen hobetu da bigarren hiruhilekoarekin (-6, +8 puntu) alderatuta, baina oraindik ere balio negatibotan dago.


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan ¹
(pertsonek %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteetarako

12. etxebizitza erosteko asmoa gutxitu egin da, eta autoarena mantendu

Etxebizitza erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*)
(pertsonek / familien %-a)



Autoa erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*)
(pertsonek / familien %-a)



Etxebizitza erostearen igurikimenak oraindik ere oso baxuak dira eta, 2016ko hirugarren hiruhilekoan, gainera, mantsotu egin dira.

EAEko familien % 2k baino gutxiagok aipatu du datorren urtean etxebizitzan inbertitzeko probabilitateren bat duela.






2016ko bigarren hiruhilekoan izandako igoeraren ostean, datorren hamabi hilabeteotan autoa erosteko asmoa duen familien proportzioa ia bere horretan mantendu da (% 5).

13. zuhurtziak jarraitzen du eta inflazio baxuko testuinguruan, kontsumoa hobetzen ari dela dirudi

2016ko hirugarren hiruhilekoan, azken zortzi hiruhilekoetako testuingurua sendotu egin da. Ondorioz, EAEko familiek kontsumoa suspertzeko (“erosketa handiak”) baldintzak finkatu dituzte eta horretarako erabakigarriak izan dira inflazio baxuko igurikimena (15, -6 puntu) eta erosketa-unearen balorazioa (-6, +1 puntu).

EAEko familien kasuan, kontsumoa¹ suspertu egin da eta joera hori erosketa handiak (aurrezkoa suspertzearekin lotutak) egiteko igurikimenera zabaltzen hasi da. Hori, esate baterako, ibilgailua erostearekin lotuta dago (baina etxebizitza erosteko asmoa oraindik ere oso geldirik dago).

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>IV H-15</u>	<u>I H-16</u>	<u>II H-16</u>	<u>III H-16</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	16	13	21	15	-6	
Erosteke unearen balorazioa	-11	-11	-7	-6	+1	
Erosketak egiteko igurikimenak	-11	-9	-14	-6	+8	

⇔ (±2 puntuko aldea)

¹Txikizkako merkataritzako salmentek % 3ko urtetik urterako igoera izan dute 2016ko bigarren hiruhilekoan (Eustat).

d) eranskina - indizeak

- I. Laburpena: familien konfiantzaren indizea 20**
 - II. Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera 21**
 - III. Beste adierazle batzuk 22**
-

Laburpena: familien konfiantzaren indizea

Laburpena: konfiantzaren indizea	2014	2015	IV H-15	I H-16	II H-16	III H-16	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-19	-6	-4	-7	-3	-5	→
• Estatua*	-9	0	2	-2	-3	-6	↓
• EB*	-7	-4	-5	-6	-6	-8	→
○ Frantzia*	-22	-17	-14	-15	-14	-15	→
○ Alemania*	1	0	-4	-6	-3	-2	→
○ Erresuma Batua*	5	3	2	2	-1	-8	↓
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-21	-4	-1	-8	-7	-7	→
• Etxeko ekonomia	-15	-7	-6	-9	-5	-4	→
• Langabezia	-18	3	6	1	9	-2	↓
• Aurrezkia	-23	-16	-15	-14	-11	-10	→
Kontsumoari buruzko igurikemenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	3	6	16	13	21	15	↓
• Erosteke unearen balioztapena	-23	-19	-11	-11	-7	-6	→
• Erosketak egiteko igurikimena	-20	-12	-11	-9	-14	-6	↑
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	2	1	1,3	1,2	2,7	1,4	→
• Autoa	4	3	3,4	3,7	6,6	5,1	→

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* III hiruhileko datuak uztaila eta abuztuko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko)

Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

Konfiantza, kontsumitzaileen ezaugarrien arabera	2014	2015	IV H-15	I H-16	II H-16	III H-16	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-19	-6	-4	-7	-3	-5	→
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	-16	-4	-4	-3	2	-4	↓
• 40 eta 54 urte bitartean	-15	-4	-1	-5	1	-2	↓
• 55 eta 64 urte bitartean	-23	-9	-7	-8	-7	-5	→
• 65 eta 74 urte bitartean	-27	-8	-7	-17	-12	-14	→
Lan-egoera							
• Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)	-14	-1	0	1	3	-2	↓
• Langabea	-37	-19	-16	-27	-19	-16	↓
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea, ..)	-25	-8	-7	-12	-8	-8	→
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-35	-21	-17	-23	-23	-22	→
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-20	-3	0	-3	-6	-5	→
• 2.800 €-tik gorakoa	-2	9	8	10	2	8	↑

Beste adierazle batzuk

Beste adierazle batzuk	III H - 15	IV H - 15	I H - 16	II H - 16	III H - 16 _(P)	(azkena)
BPG	2,8	3,1	3,4	--	--	I hir.
Familien kontsumoa	3,1	3,0	3,1	--	--	I hir.
Afiliazioa	-0,7	2,2	-0,4	1,1	-0,4	abuztua
Erregistratutako langabezia	-4,3	-1,8	1,5	-3,9	-4,1	abuztua
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,4	0,0	1,0	1,3	--	II hir.
Azalera handien salmenta-indizea	0,2	0,1	-0,3	-0,5	--	ekaina
Etxebizitzen salerosketa	-5,9	-10,4	35,8	4,2	--	II hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	-10,8	14,6	-8,0	14,6	-16,5	abuztua

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Azalera handien salmenta-indizea. Eustat. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa.
6. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
7. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko. Erreferentziatzko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza.

e) eranskina - metodologia

- I. Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da? 24**
 - II. Zer esan nahi du indizearen bilakaerak? 25**
-

Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?


Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) ekonomia orokorraren egoera
- 2) etxeko ekonomiaren egoera
- 3) langabeziaren bilakaera
- 4) etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.

¹ *Consumer Confidence Indicator*; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea



Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetorainoko bitartean) sailkatzen da.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- *ekonomia orokorrarena*
- *etxeko ekonomiarena*
- *aurrezteko gaitasunarena*
- *langabeziaren bilakaerarena*

Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.
- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek



fitxa teknikoa

- *Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.*
- *Abuztuaren 29tik irailaren 12ra (2016ko III. hiruhilekoa)*
- *Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.*
- *% 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea*

metodologia

- *Kontsumitzailearen konfiantza-indizea*
- *Europako Batzordea* http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm